

### **MAISU ETA MAISTREI DEIALDIA: 3. MAILAKO AZTERKETARI, EZ!**

Hobekuntza prozesu batean, ebaluatzea beharrezkoa da. Hezkuntza sistemak ezin du gogoeta hontatik kanpo geratu, beraz, steilas-en, hezkuntzako profesionalek horretarako tresna eraginkorrak, arinak, sarbide errazekoak eta praktikoak izan behar dituztela pentsatzen dugu, horrela, inguruko erreferentziak bilduz eta hezkuntza komunitateak ebaluaketa bat egin ondoren, feedback-a administrazioari bueltatzeko. Ebaluaketa honen ardatza ikastetxe bera izan beharko luke. Benetako autonomia hori izango litzateke.

Inposatzen ari zaizkigun planteamenduak, administrazio desberdinek totem bihurtzen ari diren neurketa sistemak, hezkuntza sistemaren kontrol eta homogeneizazioari erantzuten dio. Administrazioek, bere erantzukizunari uko eginez, gero erabiliko diren ebaluaketa irizpideak "Banco Mundial" eta OCDE-ren esku uztea da deigarriena. Horrela, hezkuntza komunitateko adostasuna, akordioa, eta hezkuntza eragile eta administrazioaren arteko elkarlana, ezinezkoa bihurtuz. Zoritxarrez, gure hezkuntza arduradun nagusiek) amildegira garamatzate: ebaluaketa sistema egoki batean (Antzuola, Amara Berri, ikasketa komunitateak,...) lekuri ez duten kanpo azterketak, metodologia eta sistema berritzaile hauek egoki egiteko informazio igorle huts bihurtu dira irakasleak. Horrela, ikastetxe on eta txarretan sailkatuko ditugu, ikasleen bereizketa,...

Baina zein da benetako egoera? Hau da 2016-2017 urterako, derrigorrezko hezkuntzan (Lehen Hezkuntzan eta Derrigorezko Bigarren Hezkuntzan) PNV-k eraiki duen hesi lasterketa: 3. mailako diagnostiko kanpo-proba, 4. mailako diagnostiko kanpo-proba, irakurtze ulermen proba den PIRLS 4. mailan (hau ere kanpo-proba), 6. mailako diagnostiko kanpo-proba, ikastetxeari egiten zaion kanpo-proba 2.DBH-n , 4. DBH-ko errebalida eta PISA pilotajea ikasturte berdinean. Guzti honek ikaslegoan sortzen duen egonezina, lehen ere egoera hau bizi izan dugunok bakarrik ezagutzen dugu. PNV-k jauntxokeri hau inposatzean, ikaslegoan ez du pentsatu, ez eta irakaslegoan eta are gutxiago ikastetxeen hobekuntza prozesuan. Horrelako zerbait hezkuntza sisteman aplikatzeko, edo eskola bat zer den ez dakizu edo irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren berri ez duzu.

ISEI-ren (Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea) ebaluaketarako erreferenteak, INEE (Instituto Nacional de Evaluación Educativa), EURYDICE (Estatuko hezkuntza administrazioak duen lurralde lankidetzarako mekanismo bat), REDINED (Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak eta Autonomia Herkidegoko bakoitzeko Hezkuntza departamenduek duten elkarlan proiektua) eta nola ez, OCDE (Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundearen

(*ELGA=OCDE*) Organización para la Cooperación y el Desarrollo Económicos) dira. Hortik ateratzen dira inposatzen ari zaizkigun ebaluazio sistemak. Hori horrela, norberak bere ondorioa atera dezala.

Gure Hezkuntza arduradunen arduragabekeriaren aurrean, klaustroei berriro ere arduraz jokatzera dei egiten dizuegu. Haur eta gazte askoren etorkizuna gure esku dago eta agintarien arduragabekeriaren gainetik, ditugun printzipioak arduraz eta koherentziz defendatu behar ditugu. Hauek joan eta beste batzuk etorriko dira. Guk ikastetxeetan jarraituko dugu eta gu izango gara azken finean gure ikasleen heziketa hobe baten mesedetan erabakiak hartuko ditugunak. Momentu honetan, 3. mailako azterketa atzera bota dezakegunean, irakasleok beste aldera begiratzeak, ikasleak umezurtz uztea suposatuko luke.

Departamentuaren presio eta arduragabekeriaren aurrean bakoitzak bere erabakiak hartu ditzala: guk gurea argi degu, Plantoa eskatzen dugu.